



SANANTOLINAK

2024

IRAILAREN 1 ETIK 8 RA

[LEKEITIO]

LEA-ARTIBAÍ, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

HITZA



AUTOS BERRITXU

AUKERAKO KOTXEAK

www.autosberritxu.com

Erribera auzoa, 13 behea
94-613 99 90 · BERRIATUA

Ondo pasa san antolinak!

SANANTOLINAK

2024

[LEKEITIO]

I R A I L A R E N 1 E T I K 8 R A

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak

Helbidea:

Markina-Xemein

Arretxinaga kalea 1

tel.: 94-684 4436 • lh@hitza.eus

Gernika-Lumo

Elbira Iturri kalea z/g

tel.: 94-627 10 85 • busturialdea@hitza.eus

www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus



DOAKO ARGITALPENEA

www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus/jaiak/



Jaietan ADI!
Urtero modura,
sanantolinen argazki
galeria eta bideoak
egongo dira HITZAren
webgunean,
JAIAK atalean.

Azaleko argazkia:

Parkeko buruhandien tailerra.

Mikel Reina Barros.

Lea-Artibai, Mutriku eta

Busturialdeko **HITZA**

Testuak:

Ilbarri.eus • Lore Bengoetxea Ibazeta •

HITZA • Zalao Badiola Perez •

Lekittoko Mugimendu Feminista •

Lekeitioko Udala.

Diseinua eta maketazioa:

Ilbarri.eus • Eli Azpiazu Armaolea

Publizitatea:

HITZA • Maribi Fernandez Zabala

Argazkiak:

Lore Bengoetxea Ibazeta,

Zalao Badiola Perez, Mikel Reina Barros,

[Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko

HITZA], Lekeitioko Udala, Parkeko Gunia

eta Lekittoko Mugimendu Feminista.

1958tik **ZARAUTZ**
A L T Z A R I A K



- Era guztietako altzariak
- Sofak eta osagarriak, tradizionalak zein azken tendentzietakoak
- Diseinu eta aurrekontuak konpromisorik gabe

94 684 06 53

94 625 85 78

LEKEITIO • GERNIKA

mantxua

taberna jabetxea • bar restaurante

L E K E I T I O

Behoko kalea, 24 • 94-465 33 49

11barri
DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ

11BARRI.EUS

IDETAK
SORMENEZ
ONTZEN
DITUGU

607 49 01 66 | 607 49 01 62 |
info@11barri.eus



DISEINU GRAFIKOA • KOMUNIKAZIOA •
SARE SOZIALAK • TESTUGINTZA...

abuztuak 31, zapateria

• 10:00.

PLAZAREN APAINKETA
Garraitz Kirol taldearen eskutik.

• 10:00.

SAN ANTOLIN TROFEOA:
Lekeitio FT (kadeteak) - Athletic (infantilak).

• 12:15.

SAN ANTOLIN TROFEOA:
Lekeitio FT (jubenilak) - Athletic (kadeteak).

• 18:00. SAN ANTOLIN

28. ALTUERA JAUIZIKO
TXAPELKETA plazan.

Tximista taldeak antolatuta.

• 19:00.

Jai Alai Udako Master Series
ZESTA PUNTA TXAPELKETA
Santi Brouard pilotalekuan.

Jaietan bakoitzak bere «tanqia» erabil dezala!

Heria txukun mantentzeko ahalegina **denon artean** egin behar dugu.

irailak 1, domeka

San Antolin bezpera
Bajada eguna

• 12:00.

BURUHANDIAK ETA
ERRALDOIAK kalerik kale,
Itxaropena txistulari taldearekin.

• 19:15.

37. KUADRILEN BAJADA,
Lekitto musika bandak eta
Aittitta Makurra txarangak
animatuta.

Hasiera Sabino Arana 31tik (Telefonikako eraikinaren aurretik). Kuadrilak musika bandaren atzean kokatu beharko dira. Herriko taldeen musika ondo entzun ahal izateko, bozgorailurik ez eramatea eskatzen da.

• **Bajadaren ostean.**

TXOSNEN IREKIERA.
Ant.: **Txosna batzordea**

• 20:00.

ANGELUSA, hasiera emateko
San Antolinei; KANPAI JOTEA,
TXUPINAZOA eta ANTEROREN
BAJADA.

Romi eta Ixone Markes, Jai Batzordeko kideak eta urte askotan zehar herriko jaietako ekintzak antolatu eta animatzearen arduradunek botako dute txupinazoa.

Albina Stardust & Divina Comediaren

MUSIKA EMANALDIA plazan.
Bajadaren amaiera animatu
eta gaua girotzeko.

• 22:30.

SUZKO ZEZEKA plazan.

• 23:00.

DJ SAIOA
eskolapean.
DJ Fonoplay.

• 23:30.

ERROMERIA
plazan.
Garilak 26.

• 22:00-02:00.
PUNTO MOREA.
ERASO SEXISTEN
ARRETA GUNEA
udaletxeko
eskailera
aurrean.

Willow's Tavern

Biker Bar



(PUERTO)

willowstaverns@gmail.com

Lekeitio

☎ 94 624 3570



IGELTSEROTZA
ELEKTRIZITATEA
ETXE-ISOLAMENDUAK

UGARTEBURU, C.B.

Zumatzeta kalea 2 - 1. D - 48280 LEKEITIO
Tel. 605 71 72 74

ZUMARAN

arrain eta
itsaski freskuak



Abaroa, 9 behea | Antiaguako ama, 1
94 684 04 29 | 94 684 27 68

L E K E I T I O



Eralkuntza lanak • Gremio koordinaketa

Pietate kalea, 30 LEKEITIO
670 632 680

jai zorionsuak!

DASTALEKUA

KAKOR

GOZOTEGIA

Abaroa, 41- LEKEITIO_ Tel.: 94 684 25 28

Pateon

Ez dauzuek gogoz, ondo pasa jairten!

IXONE ETA ROMI MARKES “MARKESEN ALABAK” ☉ Txupinerak.

“Herriari eskeiniko nioke txupina”

“**M**arkesen alabak” izenpean herriko kultur ekin-tzetan antolatzaile zein animatzaile lanetan ibiltzen dira Ixone eta Romi urte guztian zehar: San Antolin jaietan, San Pedro egunean, Gabonetan...

San Antolinetan Playback txapelketa antolatzaren ibiltzen zarete. Nola hasi zineten lan horretan?

Ixone Markes: WC Komuns kuadrillak antolatzaren zuen lehen Playback txapelketa eta Romik urtero parte hartzen zuen. Antolaketa lanak utziko zituztela esan zutenean guri proposatu ziguten ea hartuko genukeen lekukoa. Nahiz eta hasieran ezetz esan, hemen gaude ... urte eta gero.

San Pedro egunena ere goizean goiz hasten zarete martxan.

Romi Markes: Hau ere “de refilon” heldu zitzaigun. 2012. urtean Herri Antzerki bat egin zen eta bertan egin genuen lehenengoz Dei eitteko moduan. Ordura arte egindakoek erre-

tiroa hartu behar zutela eta, geu hasi ginen. eta gero.

Urte hauetan guztietan bitxikeriaren bat edo beste izango zen...

I.M.: Playbacketan ez horrenbeste, baina San Pedro egunean bai. Behin gizon batek pertsiana amorratuta igo eta “QUE OS CALLEIS!” hasi zen zaratara. Kalerik kale ibiltzen garen emakume kuadrilla bere lehio azpian batu eta han hasi ginen: “... gora jangoikuaren izeniaa-an!”. Oso lekittarra ez zen izango gizon hori.

Txupina botatzean zer esango zenukete horretarako aukera izanez gero?

I.M.: Herriari eskeiniko nioke. Azken finean herri-

tarrak izan dira bozkatu gaituztenak, herritarren-gatik egongo gara udal-txeko balkoian Irailaren lean.

R.M.: Urte guztian zehar egiten dugun lana herritarrek eskertzen dutela adierazten du gu bozkatu izan-nak. Bada modu bat eskertza hori bueltatzekoa. Nik irrintziren bat botako dut seguru.

Herritarrentzako mezurik?

Herrian edozer antolatzeko jendea behar dela. Ideia berriak, jende berria, aurpegi berriak, gazteak... Oso gutxi gara, adibidez, Jai Batzordean parte hartzen dugunok. Proposamenak izan ditzaken edonor oso ondo etorria izango da. ☉



eskola eta
bulegoetarako materiala

URBIETA

PAPERTEGIA

Gora san antolin!

Artolaba, 4 behea
94 624 38 32
LEKEITIO

**ONDO
PASA
BAINA
EZ PASA**

OGITEGIA PLAZA



Ondo pasa jaiak!

ATXABAL, 4 LEKEITIO
94 684 02 07

LAIKOR

ALTZARIAK ARROZTEGIA

- Sukaldeko altzariak eta elektrogailuak
- PVC, aluminio eta egurrezko leihoak
- Sarrera eta barruko atearak

ZERBITZU
BERRIA
ALTZARIAK
&
SUKALDEAK

94 684 2881
609 482 958
laikor43@gmail.com
P. Abaroa • LEKEITIO



IZAYFER

AHOLKULARITZA

- Fiskal
- Laborala
- Kontularitza
- Erretiroak
- Errenta
- Aseguroak

Agirre Solarte, 11 • LEKEITIO
tel.: 94 684 25 85 / faxa: 94 684 31 66

HATOR

FRANTSESA



Ondo
pasa
jaiak!

OPARIAK, ESKULANAK
ETA KONTSERBAK

BIRA

LEKEITIO



688 74 92 27



@biralekeitio

Gamarra kalea, 2 - LEKEITIO

irailak 2, astelehena

*San Antolin Eguna
Alkondara zuri eguna
Amnistia eguna*

• 09:00.

AKORDEOI-JOLEEN KALEJIRA.

• 11:00.23. TIRAGOMA TXAPELKETA
Limoneroan.

Parte hartzeko izena ematea: 10:30ean.

Aittitta Txiki elkartearen eskutik.**• 11:15.**

AGINTARIEN PROZESIOA.

Lekeitioko alkate eta zinegotzi jaun-
andreak udaletxetik eleizaraino joango dira,**Lekitto musika banda**k lagunduta.**• 11:30.**

MEZA NAGUSIA,

Elizako koruak abestuta.**• 12:00.**

BIODANTZA. Parkean.

Ant.: **Parkeko Gunia**.**• 13:00.****Lekitto musika banda**ren

KONTZERTUA plazan.

Zuzendaria: **Urtzi Iriondo**.**• 17:00.**

ALTXORRAREN BILA.

6-8 urtekoak gurasoak
lagunduta.

Izen ematea: 16:30.

MURAL

KOLEKTIBOA.

Zikintzeko eta aldatzeko
erropa ekarri.

ERAIKUNTZA

TAILERRA.

Ant.: **P.G.****• 18:00.**

XIX. TXAPEL JAURTIKETA

Uribarren kalean.

Parte hartzeko izena ematea:

17:30etik 18:00etara.

Aittitta Txiki elkartearen eskutik.**• 19:30.**

OMENALDIA XENKI ETA

MURGI GOGOAN. 52. urteurrena.

• 20:00.

FAROLAPEKUA,

parkean.

Toki&Gaizka eta**Dei** musika taldeak.Ant.: **P.G.****• 20:00.**

BERTSOLARIAK

Arranegin.

BALKOITIK BALKOIRA:

Maialen Lujanbio,**Miren Artetxe**eta **Xabat Gallettebeitia**.**• 22:00.**

KONTZERTUA plazan.

Mariachi Cazahuetes.**• 23:00.**

SU ARTIFIZIALAK

Valecea

pirotekniaren eskutik.

• Ondoren.

SUZKO

ZEZENA.

• Jarraian.

KONTZERTUA plazan.

Mariachi Cazahuetes.

lekeitiokoikastola.eus

AZKUE

LEKEITIOKO IKASTOLA

biharko herritarrak hazten

94-684 09 59 • lekeitio@ikastola.eus • @RMariakoeikastola • azkue.ikastola • azkueikastola



TXAKARTEGI
M A R G O A K



Buenaventura
Zapirain 3, behea

LEKEITIO
94-656 08 26



tia fran

94 624 32 06
Uribarren kalea 6

AISSA INTXAUSTI ABURRUZA XABAT GALLETEBEITIA ABAROA

📍 Poto Bertso Eskola



Balkoia agertoki

San Antolin Egune-ko klasiko bat da Balkoitik balkoira ekimena, “bajada-ko biharamunari aurre egiteko erarik onena” Xabat Gallettebeitia Abaroa bertsolariarentzat. Bera da aurten balkoietako “okupetako” bat, eta Miren Artetxe eta Maialen Lujanbio, besteak.

Hiru balkoi eta kokagune bat: Arranegiko Zabala. 2022ean horraxa pasatu zuten saioa, urte askoan udaletxe aurrean egin ostean. “Ikusteko leku onaz, baina bertso-tan aritzeko ez, igarolekua delako”, adierazi du Aissa Intxausti Aburruza bertsolariak. Bera eta Gallettebeitia aritu dira aurtengo sanantolinetan ere saioari

forma ematen. “Orain dela hiru urte bertso eskolalook udalagaz batu ginen antolakuntzan parte hartzeko eskatzeko, bate-tik, eskualde mailako beste saio batzuekin koordinatuta egoteko, eta beste-tik, bertso saioetako beharrianak kontuan hartzen zuten”, gogorarazi du Intxaustik. Taldeak beharrezkotzat jotzen du saioetan Lekeitioko bertako edo inguruko herrietako bate-ren batek parte hartzea. “Librean, balkoitik balkoira izanda bertsolariak ezin direnez komunikatu gaiak eta doinuak adosteko, garrantzitsua da inguruazagutzen duen bat egotea, gidari lanak egingo dituen bat, Lekeitioko gauzak dakizkiena, pil-pilean

zer dagoen transmitituko diena, eta horregatik, esate baterako, aurten Xabatek abestuko du”, argitu du Intxaustik.

Ikusleak, gozaten

Bertsolariarentzat ez da formaturik erosoena, ezin daitekeelako komunikatu gainontzekoekin gaiak proposatu eta adosteko. Ikusleak, oster, gozatu egiten dute, eta balkoia-ku uzten dituzten etxe jabeak ere pozik egoten dira. “Gozo hartzen dituzte bertsolariak, eta etxean modura sentiarazten dituzte”, dio Gallettebeitiak.

Bertso ekimen gehiago ere egiten dira, eta ondo funtzionatzen dute. “Lekeitiokoa esker oneko publikoa da; jendeak erantzuten du”, adierazi dute bertsolariak. Bai bata, bai besteak, Bizkaiko azken bertsolari txapelketan parte hartu zuten, eta autobuskada joan zen BECeko finalera herrikoak animatzera. “Ez gara bereziki herri bertsozalea. Gehiago gara fanak”, diote.

Ikasturte berria ate joka, gazteen bat-bateko taldea sortzea nahiko lukete, jakin badakite-eta ikastetxeetako bertsolaritza ikastaroeetatik bertsoetan jarraitzeko gogoz galditzen direla zenbait. Sanantolinetako saioak jendea horretara animatzeko giro aproposa eragin dezake. 📍



Zure eguneroko denda
HARATEGIA / URDAITEGIA
FRUTERIA / IZOZTUAK
JAI ZORIONTSUAK

Santa Katalina 2 _ 94 684 04 94
Mª Diaz de Haro 4 _ 94 624 36 71
LEKEITIO



Uronza
Urdaki-Baonza

94-684 37 69 | 656 78 03 41

TXATXO
PLAZAKO
TXIRINGITUA

Handariza ondo *geraite gona*

JOSE ODRIOZOLA
KALIDADE
GORENEKO
PRODUKTU
AUNERA ZABALA

94-684 20 43
Santa katalina, 4 - LEKEITIO

ondo pasa jaietan!

**Ku
ka
dak**

Paskual
Abaroa
17 beheia
94/603 95 31

Kiz-Kiz
ileapaindegia

94 684 20 33
Paskual Abaroa etor.
26 (bis) beheia
48280 Lekeitio

→ irailak 3, martitzena

*Kamiseta eguna
(kuadrilakoa,
erreibindikatiboa...)*

• 10:00etatik aurrera.

28. PAELLA
TXAPELKETA plazan.
Ant.: **Jai batzordea.**

• 11:00.

KUADRILEN
ARTEKO
LASTERKETAK
Abadeen moilan.
Ant.: **Garraitz K.T.**

• 12:00.

BITS JAIA.
Parkean. Bainujan-
tzia, uretako betaurre-
koak eta aldatzeko arro-
pa ekarri. Ant.:

Parkeko Gunia.

• 12:30.

TXISTULARIEN
KONTZERTUA.
Udaletxetik hasi eta
ondoren eskolapean.
Itxaropena txistulari taldea.

• 13:00.

UREZKO ZEZENA
Ant.: **P.G.**

• 13:30.

PAELLEN AURKEZPENA eta
SARI BANAKETA
plazan.

• 15:00.

HERRI BAZKARIA.
Paella eguna.
Eguraldi onarekin arbolapean.

• 17:00.

PIRAGUA IRTEERA.
Dzanga Piragua taldearen eskutik.
11 urtetik beherakoak nagusi batek
lagunduta.
Izen ematea; irailak 2 eta 3 goizean,
parkeko txosnan.

ERAIKUNTZA
TAILERRA.

Ant.: **P.G.**

• 19:00.

TXOKOLATADA.
Ant.: **P.G.**

• 20:00.

FAROLAPEKUA,
parkean.
Gu tagitarrak
musika taldea.
Ant.: **P.G.**

• 20:00.

ELEKTROTXARANGA
txosnetatik hasita.
Ant.: **Herri Mugimendua.**

• 21:30.

KONTZERTUA
plazan.
Sua.

• 23:30.

KONTZERTUA
plazan.
Esne Beltza.

• 00:00.

ESKAINITZA
MUSIKALA
portuan.

DJ Elepunto.

Ant.: **Herri Mugimendua.**





Pintxoak, bokatak, razioak,
hanburgesak... eta gehiago.

94-684 19 23

Azpiri kalea • LEKEITIO

ERKIAGA
LEKEITIO



Urdazubi 6 • 48280 LEKEITIO
t. 94-407 43 99

HITZAREN TOKI PUBLIKOA



D A S T A T E G I A

Egursentia

Atea kalea 28 (Ikastolaren parean) • LEKEITIO •
94 684 29 25 • 688 719 843

www.egañarestaurante.com

Egaña
JATETXEA

Tel.: 94 684 0103

Antiguako ama, 2 - 48280 LEKEITIO

LEKITOKO DEABRUAK ◉ Suzko zezenaren eroaleak.

Txinpartazaleak

Umetatik izan dira suzko zezenzale, Iñaki Pajares zenak eramaten zuen garaitik. Azken zazpi urteetan, euren ardura da. Lekittoko Deabruak prest daude, beste behin, su festa jende artera eramateko.

Gorka Rodriguez Akarregi, Julen Fernandez Zabala eta Imanol Barainka Arriagaren artean banatzen dute lehen Pajarasena baino ez zen zeregina. Hura gaixotu zenean, gauza natural modura hartu zuten lekukoa. “Txinparta gustatzen zaigu eta!”, aitortu du Barainkak.

Txinparta gogoko izatea ez da nahikoa, ordea. Zama eramateko prest egon behar da. Eta horrez gain, lasterka egin. “Suzirien karga eta guzti, 40 kilo inguru hartzen ditu. Zama hori gainean jendeartean aringa-aringa, adrenalina goian eta erori gabe,... izerditan eta lehertuta amaitzen dugu, baina gozatu egiten dugu. Horretxetara joaten gara!”, dio Rodriguezek.

Oso errotuta dago suzko zezena Lekeitioan, ohi-

tura handia dago. “Erdiak eta bi ezagunak dira. Denak egoten dira kasu egiten, eta norbera ere saltsan”, esan du Fernandezek. Sanantolinetan hiru hitzordu izaten dituzte, irailaren 1a, 2a eta 8a, eta bakoitzean zortzi minutu inguruko ibilbidea egiten dute, plazan hasi eta plazan amaitu —aitortzen dute batzuetan muga

daukategogoan momentu horretan, eurekzein haren senideek. “Sanpedroetan eskatu izan digute eurei uztea sua pizten. Familian presente daukate. Eta geuk denok ere bai”, nabarmendu du Barainkak.

Denetarik publikoa batzen du ikuskizunak, batzuk parte hartzen eta beste batzuk ikusle pape-rean. “Suzko zezenak le-

hen besteko pisa dauka herrian. Gehiago esango nuke: gaur egun oraindik eta gehiago”, dio Fernandezek. Orain, hori bai, akerra da. “Gureak akerrak dira, ez zezen, eta Lekittoko Deabruen parafernaliaren parte”, zehaztu du Rodri-



Gorka Rodriguez Akarregi, Julen Fernandez Zabala eta Imanol Barainka Arriaga.

zertxobait gainditzen dutela. Rodriguezek dioenez, “zezena solte dagoenean, solte dago” —, entsegu beharrik gabe: “luzaketa batzuk egin eta kitto”.

Pajares, erreferentzia

Pajares izan da denen erreferentzia, eta denek

guzuek. Arrazoi horregatik, taldean bertan bertan ikusten dute inoizko denboran lekuko aldaketa, belaunaldi gazteak ere oso zale dira eta. “2025erako deabruen umeen taldea aterako dugu. Talde horretxetan dago hurrengo kimua”, esan du Barainkak. ◉

SAN Lekittoko ANTOLIN JAI



Apartak izan
ditzazuela!

www.leartik.eus



ITXAS-ALDE
GASTRO-TABERNA

Itsasargia BAR

Fosta aferlek enkerguz,
baxida neturenik, paxtoak, rezioak...
zatoz momentu ahazterinak igarotzen!



628 57 03 07

Santa Katalina
LEKEITIO



**IRIGOIEN
OPTIKA**

OPTIKO-OPTOMETRISTA | AUDIOPROTESISTA
ENTZUMEN ZENTROA



Zumatzeta, 1 - LEKEITIO 48280
638 37 63 33
T./Faxa:94 584 31 72
irigoienoptika@telefonica.net

INOXKEA

HIRI ALTZARIAK

inoxkea@inoxkea.com

www.inoxkea.com

INOXIDABLEAK eta burdin lanak



Tel. 94 624 35 40 / Mug. 628 77 01 97

Clarkika indust. 1. A. gab. 1. Mod. 7. 48289 GIZABURLAGA

irailak 4, eguaztena

Antzar bezpera

• 10:00-13:00.

ANTZAR EGUNEKO JAIAN
PARTE HARTZEKO
IZENA EMATEA
Kultur Etxeko Azkue Aretoan.

• 12:00.

MUSIKA TRESNAK SORTU.
Ant.: **Parkeko Gunia**

• 16:30.

ESKU PELOTA:
Zapaterito pelota
txapelketaren finalak.
Zapaterito frontoian.
Ant.: **Akarregi esku pelota taldea.**

•Ostean.

ESKU PELOTA:
Emakumezko afizionatuen
binakako plaza libre desafioa.
Zapaterito frontoian.
Ant.: **Akarregi esku pelota taldea.**

• 17:00.

SERIGRAFIA TAILERRA.
Etxetik ekarri serigrafiatzeko
kamiseta argi bat. Ant.: **P.G.**

• 18:30.

PARKEKO
BANDAREN
PASAKALLIA
Ant.: **P.G.**

• 19:00.

FUTBOLA: *Nagusien*
San Antolin futbol trofeoa.
Kepa Naberan Kaltzakorta
futbol zelaian:
Lekeitio F.T. «A»- Artibai.

• 19:30.

ATUNERREA.
Ant.: **P.G.**

• 20:00.

FAROLAPEKUA parkean.
KONTZERTUA.
Ganita Kamuts
Ant.: **P.G.**

• 21:00.

II. CORREFOC FESTA
San Pedro kofradiatik plazara.
Lekittoko Deabruak (Lekeitio),
Es mals Esperits (Ibiza),
Diablos Riudoms (Riudoms) eta
Kolpez Blai (Astigarraga)
taldeen eskutik.
Ant.: **Lekittoko Deabruak.**

• 22:00.

32. PLAYBACKA
plazan.
Ant.: **Markesen alabak.**





ERABIL
KARTOI KUTXAK

Zulueta auzoa, z/g
94 684 40 02
AMOROTO
www.erabil.com



Gazpatxo, salmorejo, montaditoak..
Pintxoak eta razioak

Ondo
pasa
jaiveak!

Triana

658746498

Apiriloa 22
LEKEITIO



Torrealday

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE
AHOLKULARITZA
www.torrealday.es/eu

GERNIKA • 94 627 00 36
LEKEITIO • 94 694 28 75
ONDARROA • 94 683 29 75



Talako
Aroztegia S.L.

ATEAK • LEIHOAK • EGUR ETA LAMINATU ZORUAK •
TOLDOAK PERSIANAK • AROZTEGIKO LANAK OROKORREAN

denda: 94-684 13 01 (P. Abaroa etorbidea, 41C)
tailerra: 94-624 35 74 (P. Abaroa etorbidea, 55)
talakoaroztegia@gmail.com • LEKEITIO

SCHÜCO
VISION

Eskatu
aurrekontua
konpromiso
baik!

GOZATU DAIGUN DANOK JAIETAN



« **L**ekeitioko emakume feministak urte emankorra izan dugu, iazko jai bezperetan aurreratu genuen bezala Andraetxe-ko prozesuari amaiera eman eta sare zabal bat josi dugu. Gure etxea eztabaida zabal eta sendoa ematen ari da sujetuaren inguruan, gu geu ezagutzeko, ikusmira zabaltzeko, ... eraso matxistei erantzun zorrotza emateko ere protokoloa osatzen ari da. Horretaz gain herriko emakumeak antolatu eta bakoitzak bere ekarpena egin du Andraetxean bere ezagutzak partekatuz edo ekintza ezberdinetan parte hartuz. Andraetxea beraz bizirik dago, Lekeitioko emakumeak antolatzen ari gara eta feminismoa eraikitzen.

Jaietarako ere antolatu gara erasoen aurrean

sortuta dugun protokoloa eguneratu eta eraginkorrerago egiteko. Aurten urrats garrantzitsu bat eman nahi izan dugu eta

gure protokoloari LGT-BI+ kolektiboaren kontrako erasoerei erantzuteko irizpide argiak txertatu dizkio, idatzita izan ez genduen arren iazko jaietan jasotako kolektibo honen kontrako eraso ez zen erantzun gabe gelditu.

Protokolo hau erasoak gelditzeko tresna dugu, emakumeon antolakuntza eta borrokak soilik gelditu baitezake egiturazkoak diren eraso hauek. Lekeitioko mugimendu feministak ozen aldarrikatzen du erasoen aurrean autode-

fentsa feminista dela erantzun bakarra.

Zergaitik autodefentsa feminista? AUTO ez dugu-lako sasi-salbatzailerik behar, gu geu gai garelako! DEFENTSA gure eskubideak ez baditugu guk geuk defendatzen, ez du beste inork egingo. FEMINISTA balio justuagoetan oinarritutako harremanak lantzen dituelako!

Lekeitioko feminista eta emakumeok argi dugu ez garela kikilduko, hori dela eta jaietako egun guztietan txosna batzordeko

beste taldeekin batera indarkeria matxistei erantzuteko protokoloa martxan jarriko dugu. Mugimen-

du feministako kideok ozen esan nahi dugu erasoen aurrean autodefentsa feminista!

**GORA BORROKA
FEMINISTA!**

**LEKITTOKO
MUGIMENDU
FEMINISTIA**



ITURGINTZA
GAS PROIEKTUAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
ESKABAZIO LANAK



Mugikorra: 635 749 479
Tel: 94-684 30 22
sugaslan@gmail.com
Paskual Abaroa etorbidea, 39 LEKEITIO (Bizkaia)

seijopinturalanak@gmail.com

Eusebio M. Azkue
(Trinkete aurrean) LEKEITIO

626 774 342



ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!

PINUPE
LEKEITIO
TABERNA



Paskual Abaroa etorb. 12
LEKEITIO
94 684 2984
www.hostelpinupelekeitio.com



662 26 30 24
Santa Katalina I behea, LEKEITIO



irailak 5, eguena

Antzar eguna

• **10:00.**

Lekitto musika bandaren KALEJIRA.

• **11:00.**

BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK
KALERIK KALE
Itxaropena txistulari taldearekin.

• **11:30-14:30.**

UMEEN PARKEA
Juan Bautista
Eguzkitza
enparantzan eta
plaza gorrian.



• **11:45.**

Itxaropena
TXISTULARIEN eta
ANTZAR
BATZORDEAREN
KALEJIRA
Kioskoraino.

• **12:00.**

ZOKETA PLAZAN,
antzarren jaian parte hartuko
duten txalupei zenbakia
emateko.

• **13:00.**

TXISTULARIEN
BATZEA
Eskolapean,
Itxaropena
txistularien
gidaritzapean.
Txistua jo nahi daben guztia
etortzera gonbidatzen da.

• **16:00-20:00.**

UMEEN PARKEA
Juan Bautista
Eguzkitza
enparantzan
eta plaza gorrian.



• **16:00.**

ANTZAREN JAIA
portuan.



• **Gero.**

MASTA-PUNTAKOIA.

• **18:30.**

VI. CaixaBank Mastersa
ESKU PELOTA
TORNEOA
Santi Brouard
frontoian.

• **19:00.**

DJ SAIOA plazan.
DJ Gurru.

• **22:00.**

ERROMERIA
plazan.
Trikizio.

• **01:00.**

DJ SAIOA
plazan.
DJ
Ibon Insausti.

• **22:00-02:00.**
PUNTU MOREA.
ERASO SEXISTEN
ARRETA GUNEA
udaletxeko
eskailera
aurrean.

info +: 39. orrialdean



RAKEL BILBAO
 ZENTRO MEDIKU ESTETIKOA
www.rakelbilbao.com
 (i) (f) (t)



94-656 25 15 • 679 102 394

Santa Katalina, 2 - LEKEITIO
info@rakelbilbao.com

Prim erretegia



Txatxo kaia - LEKEITIO
 94 675 4832 / asadorprimlekeitio@gmail.com

ITURGINTZA | GALDARAK | GASA | ENERGIA BERRIZTAGARRIAK



Maguregi
 iturgintza

DENDA BERRIA: Buenabentura Zapirain, 3 behea
TAILERRA: Aldamiz Etxebarria, 1 behea • LEKEITIO
 656 70 83 92 • 94-684 00 22 • maguregi_iturgintza@yahoo.es



LUMENTZA GASTRO BAR

94-684 15 01

www.lumentza.site

B. Zapirain, 3 LEKEITIO

↓ Inkesta

PORTU BARRUKO ANTOLAKETAK ERAGINA DAUKA ANTZAR JOKOAN. ZE IRITZI DAUKAZU HORREN GAINEAN?



**Pello
Hernando
Etxebarria**

“Aldaketak ikuskizunaren kalterako izan dira. Lehengo xarma hori, “kontrol-deskontrol” hori, galdu egin da. Niretzat politagoa zen lehengo hori. Edoze-lan ere, ohitu egin beharko gara eredu berrira”.



**Nekane
Etxebarria
Basterra**

“Nik uste dut onerako dela. Nahaspila gutxiago esan nahi du horrek. Aur-rekoan ere potinak ikus-ten egon ginen, eta horixe bera komentatu genuen, gehiegi direla, eta aldaketa hori onerako da”.



**Aitor
Eguren
Portillo**

“Aldaketa hori egitea ber-din zait. Niri ez dit eragi-ten. Potina eduki izan banu, esango nizuke zer edo zer. Ez daukat, ostera. Moilan egoten naiz, baina ez dut parte hartzen antza-hori onerako da”.



**Maria Jesus
Albizu
Etxepare**

“Azkenengo urteetan ant-zarrak telebistatik jarrai-tzen ditut, ze uste dut por-tu inguruan jende gehiegi pilatzen dela. Nahaspila-tsua da... Ondo iruditzen zait hori ordenatzeko era-bakia hartzea”.



**Gotzon
Egia
Larizgoitia**

“Lehengo sistema askoz hobe-a zen. Piboteekin-eta gehi-ago maniobratu be-har da. Ordenatzeko as-moz eginda egonda ere, ez da erraza hori kudeatzea, potin asko egotean pilatu egiten dira eta”.



**Karmen
Abaroa
Arteagabeitia**

“Taz ondo irten zuen. Hori baino garrantzitsuagoa da Antzar Eguna asteburuan jausten denean aste barru-ra pasatzea, antzina mo-dura, ze zapatu-domekan egokitzen denean, jende-z gainezka egoten da”.

Igeitsu eta sabaien apainketa · Pladurrezko tabikeak



Paskual Abaroa etorbidaa, 40 behea | 94-465 00 58 | 685 79 36 96 | LEKEITIO



JAN DA LO



ORDUTEGIA

asteheneretik domekara 10:00 - 15:00.

ETXERA BANAKETA,

(Hondartzara banaketa: 13:00-15:00).

Atea, 6 behea LEKEITIO | Tel. **9465 60758**

OILASKO ERREAK
PRESTATUTAKO

JANARIA

ARDOAK ETA

TXAKOLINA

HESTEBETEA

KROKETAK

PATATA-TORTILLA

HARAGIA

TENPERATURA

BAXUAN

LEIHOPE
taberna



661 89 50 90
Abaroa Etorb., 24 - LEKEITIO

lekeitiarra
funeraria · beilatokia

Gaiztegiunako
zerbitzua



94 684 1628
Sabino Arana 10 behea · 48280 LEKEITIO

www.inmobiliarialopez.net



Pili López Arritola

Apaltoa kalea, 22

94 624 37 77

689 582 582

pili@inmobiliarialopez.net

48280 LEKEITIO

irailak 6, barikua*Umeen Eguna***• 11:00-14:00.**

UMEEN PARKEA plazan.

• 12:00.

UMEENTZAKO
MASTA-PUNTAKOA
Abedeen moilan.
Izen ematea 11:00etan.

**• 18:00.**

JOLAS LIBREA
Ant.: **Parkeko Gunia.**

• 18:30.

Jokai. JOLAS
SORTZAILEAK
Abaroa jauregian.
Euskal mitologian oinarritutako jolasak.

• 20:00.

FAROLAPEKUA
parkean.
KONTZERTUA:
Makusai.
Ant.: **P.G.**

• 19:30.

UMEENTZAKO
IKUSKIZUNA
Abaroa jauregian.
Azken eguzkilorea.
Patata Tropikalaren
eskutik.

**• 20:00.**

ANTZAR JAIKO ETA
NAGUSIEN
MASTA-PUNTAKOAREN
SARI BANAKETA
limoneroan.

• 20:00.

ELKARTASUN
ARGAZKIA.

Portuan.

Ant.: **Ernai eta Ikama.****• 21:30.**

KONTZERTUA plazan.
Nabil.

**• 23:00.**

KONTZERTUA plazan.
ETS.

• 00:00.

ESKAINITZA
MUSIKALA
portuan.

HMNDK ETXERA**• 02:00.**

DJ SAIOA.
DJ Truetox.

Ant.:

**Ernai eta
Ikama.**



• ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.

IBARRI



687 795 736 • ibetarri@ibetarri.eus
• Eleizkale 5, 48380 AULESTI (BIZKAIA)

• BASERRIEN "BARRIZTEA" • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK

ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!

PIZZAK • RAZIOAK •
OLAGARRO RAZIOAK •
ENTSALADAK •
OGI TARTEKOAK •

LAPERRI

TXIRINGI 70A
KARRASPION



INDUSKETAK
ETXEGINTZA
BERRIKUNTZAK

**EGIGUREN
ERAIKUNTZAK S.L.**

Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94 684 00 10

Eraikuntzak
Kortabitarte, s.l.

Santa Katalina, 1A
Tel. 94 684 08 52
Faxa: 94 684 26 78

**MOTA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZAK**

Kai-Abixa



Txalxo Kaia, 13

PARKEKO GUNEA ◉

*“Talde motorraz gain,
era batera edo
bestera laguntzen
duen jende asko dago”*

Parkeko banda estreinatuko du parkeko guneak, jaietara begira egingo duen ekarpen deigarriene-tako bat, ez bakarra. Izan ere, irailaren 2tik 8ra (Antzar Eguna salbu), egunero edukiko dute zer eskainia.

Ume eta gaztetxoentzako ekimen falta nabaritututa sortu zen parkeko gunea: lagunarteko espazioa, gozoa eta kontsumismotik aparte. “Ikusten genuen plazan barrakak besterik ez zeuzkatela, eta ez ziren antolatzen kultur ekimen asko eurekin pentsatuta. Horren aurrean, alternatiba bat prestatu genuen”, adierazi du Alejandra Goikoetxea Vazquezek.

Lehen monitore eta orainguraso, Goikoetxea ia hasieratik da parkeko gune-ko partaide. Ibilbide antzekoa partekatzen dute gainerako taldekideek ere. “Hori bai: kontuan hartu behar da alde batetik, talde motorra dagoela, eta bestetik, era batera edo bestera laguntzeko prest dagoen beste jende asko”, gogora-

razi du Oier Azula Aurrekoetxeak. Izan ere, herrietik eta herriarrentzako proiektua dela nabarmendu-

dute —parkeko lehen-
haur asko antolakuntzan sartuta daude gaur egun, inplikazio horren erakusle— eta horrela dela berretsi urterik urte. Aurten, beste urrats bat aurrera eman dute parkeko banda sortuta, “banda ganberro eta dibertigarria”. Kide batzuk musikariak izanik, haien erritmora batuko dira danbor, turuta eta marakak. Maiatzean abiarazitako ekimena borobilduko dute jaietan, musika taillerrean azken bultzada emanda.

Denen laguntzagaz

Autonomia maila mantentzeko ahaleginean eta parkeko gunea sustengatzeko gogoia zabaldua dela sine-tsita, bonolaguntzak atera dituzte. “Jendeari diruz laguntzeko aukera emango diogu, ze garrantzi handia



Alejandra Goikoetxea Vazquez, Oier Azula Aurrekoetxea, Gorosti Txopitea Basterretxea eta Olaia Goikoetxea Santamaria.

ematen diogu ekintza guztiak dohainik izateari, baina laguntzeko era asko daude eta denak dira ongi-etorriak”, argitu du Goikoetxeak.

“Normala den moduan, gunea urteekin aldatuz joango da”, adierazi du Gorosti Txopitea Basterretxea, beti ere funtsari eutsita, eta horren barruan dago parkeko gunean euskarari egiten zaion aitor-tza. “Umeei euskaraz jolas-teko espazio bat bermatu nahi diegu”, esan du Olaia Goikoetxea Santamaria.

Egitarauari dagokio-nez, denetarik aurkitu ahal izango da aurten ere, beste-
ak beste, Farolapeko eki-
menen baitan. “Geure iza-
eragaz bat datoz horko eki-
menak; txikitik. Herritar
askori bertan espazioa es-
kaintzen diegu, tranpolin
bat”, diote. ◉

H. Aretxaga

Finka administratzailea
Higiezin zerbitzuak
Alokairuak eta salerosketak

Iñigo Aretxaga
Bizkaiko finka
administratzailea, zk.: 808
Arranegi 11-Lekeitio
Tel./Faxa: 94-465 35 75
Sakelakoa: 656 58 03 14
iaretxaga@yahoo.es



Ikusi

Eraikuntza materialak



ERAKUSKETA • Abaroa etorbidea, 19
94 684 14 99 • LEKEITIO
BILTEGIA • Abaroa etorbidea, 34
94 624 38 71 • LEKEITIO
BILTEGIA • Okamika I. pab • GIZABURUAGA

GOL SAOIRSE tavern



94 684 06 11
Otxoa Urkiza z/b
LEKEITIO

GOITIKO



J A T E T X E A
K A F E T E G I A



Lekeitioren bihotzean

- eguneko menua
- plater konbinatuak...
- terraza

94 684 31 03
Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO

irailak 7, zapatua

Kuadrila eguna

• 11:00.

BURUHANDIAK eta
ERRALDOIAK
kalerik kale.

Itxaropena

txistulari taldearekin.

• 12:00.

HAURRAK SUKALDARI
TAILERRA.

Izen-ematea:

abuztuak 20-29 artean, eskolapeko farma-
zian, eta irailak 2 eta 3an parkeko txosnan.

Umeek prestatutakoa jan ahalko
dute. Ant.: **Parkeko Gunia.**

• 14:00.

UMEEN
HERRI BAZKARIA.

• 15:00.

NAGUSIEN
HERRI BAZKARIA.

Bazkarietako txartelak salgai:

abuztuaren 20-29 artean
eskolapeko farmazian.

Irailaren 2 eta 3an.
parkeko txosnan.

Ant.: **P.G.**

• 17:15.

VI. CaixaBank Mastersa
ESKUPELOTA
TORNEOA
Santi Brouard
frontoian.

• 17:00.

PLAZA
DANTZEN
TAILERRA.

Erdixka

lauetan taldearen
eskutik.

Parkeko gunean. Ant.: **P.G.**

• 20:00.

Kantuzaleak

El Rocio erromeria jantzita
Eskolapean.

Ant.: **Zaletxuak**

Elkartea.

• 21:00.

KONTZERTUA plazan.

Saji.

• 22:00etatik aurrera.

Gazte eguna.

ESKAINTZA MUSIKALA

Txosnetan.

Silitia

Leinup

Malakias

Ant.: **Gazte Asanblada.**

• 23:00.

KONTZERTUA plazan.

RottenXIII.

• 01:00.

DJ SAIIOA plazan.


DJ Amataki.



* Jai batzordea:
**Jantzi «El Rocio» erromeria
mozorroarekin.**

2024ko bajada egunean irabazle suerta-
tzen den mozorroa, 2025an kuadrila egu-
neko gai aukeratua izango da.

SANANTOLINAK 2024 LEKEITIO



Urrian zortzi egun, alkar zaindu daigun



LEKEITIO
geure
nortasunetik

SORKUNDE BARAINKA AMILLATEGI JOSE MIGUEL MEABE DERTEANO

© Aittitta Txiki elkarte



“Tiragoma desagertzen doa”

Aurten 23 urte beteko ditu tiragoma txapelketak, eta 19, txapel jaurtiketa txapelketak. Aittitta Txiki elkarte arduratzen da urterik urte ekimenok antolatzeaz.

Zergatik hasi zineten tiragoma txapelketa antolatzeko?

Sorkunde Barainka Amillategi: Zer edo zer desberdina eskaintzearren. Gainera, tiragoma desagertzen ari da. Lehen nahikoa errotuta zegoen; jostailu bat zen.

Tiragoma txapelketak maila desberdinak ditu. Zergatik?

Jose Miguel Meabe Derteano: Lehenengo parte-hartzaile guztiak batera ipintzen genituen lehiatzen, baina laster oharu ginen bereizi beharra zegoela federatuen eta bertokoen artean, bestela, sari guztiak haiek eramaten zituzten. Haien materialak eta presaketak ez daukate zerikusirik, nahiz eta bertoko inguruko artean ere jende oso trebatua egon eta sanantolinetarako ondo entrenatu.

Ze disantziara jaurti behar izaten dute?

S.B. Lehiaketan aurrera egin ahala, distantzia handitzen joaten da. Profesionalak bost metrora hasten dira jaurtitzen, eta hamabi metro ingurura irits daitezke. Bonbillei eman behar diete. Eta horien neurria ere aldatzen joaten da: lehiaketan gero eta aurrerago, orduan eta bonbilla txikiagoa.

Eta zelakoa izan ohi da materiala?

J.M.M: Altzairuzko bolekin egin ohi dugu, 6,5 edo 7 milimetro ingurukoak. Batzuek entrenatzeko eskatzen dizkigute. Hala ere, bertokoez dauzkate tiragoma sofistikuatuak, federatuek modura.

Txapel jaurtiketak ere badauka nahikoa tradizioz inguruotan...

J.M.M: Gure aurretik Gernika inguruan egiten zutela ikusi genuen, eta gure ondoren beste batzuk ere hasi dira. Txapel jaurtiketa txapelketan bertoko ingurukoak eta udatiarrak etortzen dira. Gurean, txapela 35 metro ingurura bota duenik bada.

Txapela ondo botatzeko “jantzita” egon behar da?

J.M.M: Txapela botatzean hainbat faktore hartu behar dira kontuan: haizea badagoen ala ez, txapelaren forma, teknika... ●

DENDARI



Abaroa
Lurrupea, Z.C.
941684109 06
LEKEITIO

**NEURRI
bereziak**

f @danontzat



DANONTZAT

Opariak, Lurrindegia eta Moda Osagarriak

94 684 04 40
Gamarra Enparantza, 4 • Lekeitio
www.lekitionline.com

albaitariak



BOA 167713 / BAA 230 365 /
Faxo: 94 624 35 05 / behial@euskalnet.net
LEKEITIO



94-684 00 60
LEKEITIO
Buenaventura Zapirain kalea, 5 behea

**ESKUALDEKO
ZERBITZU GIDA
DIGITALA**

Egunerokotasunean behar duzun
edozein zerbitzu klik batean.
**Eskualdeko ekoizleak,
gremioak, merkatariak, enpresak...**

TOKIKO HEDABIDEA TOKIKO KONTSUMOEA BULTZATZEN



Sartu webgunera:



LEKAITZEA
ETA MERKEA

Zure proiektua, enpresa
edo negozioa
iragarri nahi duzu?
Jarri **HITZA**rekin harremanetan.

HITZA

irailak 8, domeka

*Antiquako Amaren Eguna
Koittadu Eguna*

• 09:00.

Itxaropena TXISTULARIEN
KALEJIRA.

• 11:30.

MEZA,
umeen eta aittitta-amumen omenez.

• 12:00.

ZIRKO TXIKI TAILERRA.
Ant.: **Parkeko Gunia**.

• 14:30.

LEKEITIOKO NAGUSIEN
BAZKARIA.

• 17:00.

IX. MUS
TXAPELKETA
Kai Alde
sozietatean.
Izena ematea 16:30ean.

• 17:00-19:00.

MARMOTAILERRA
Koittadurako berotzen eta ondoren,
IKARAMUSIKATUAK parkean.
Lekittoko Deabruak taldearekin.
Ant.: **P.G.**



• 21:30.

SUZKO
ZEZENA.

• **Ondoren.**

ANTEROREN
EZKUTATZEA,
2024ko jaiei
agurra emateko.

KOITTADUA,
**Aittitta
Makurra
txarangak**
animatuta.

KALEJIRA,
**Aittitta
Makurra txarangak**
animatuta.





*Javier Zubizarreta
García*

ARKITEKTURA estudioa
Atea 30, behea 2. Lekeitio

 616 143 092

 jzg.arkitektura@gmail.com

gremioen
koordinazioa
errefarmak
proiektuak
ziurtagiri energetikoak
inrsgarritasun proiektuak
EIT txostenak



ondo pasa jaizak!



TABERNA

Igualdegi 2-behea
LEKITXO

MANEX JIMENEZ GOITIA, ANA GOITIA ERKIAGA ETA JOSEBA JIMENEZ IDOIAGABEITIA

© Lekeitioko Erraldoi eta Buruhandien Elkarte (LEBE).

“Jendea behar da konpartsa osatzeko”

Familia proiektu modura aurkezten dute bertako kideek Lekeitioko Erraldoi eta Buruhandien Elkarte (LEBE), zaletasuna partekatzen dutenekin familia are eta handiagoa osatzeko bokazioagaz.

Zelan sortu zen LEBE?

Ana Goitia Erkiaga:

Manex beti egon da erraldoiekin liluratuta, eta beste herri batzuetako esperientziak ikusita eta haiengandik ikasita, bertan ere konpartsa sortzeko gogoaz zeukan —geuri, gu-

rasooi, bide batez, mundu bat zabaldu digu—. Garraitzek animatuta sortu dugu konpartsa. Garraiz izan da orain arte herriko erraldioen arduraduna.

Beste laguntzaile batzuk ere badauzkazue...

Eta laguntzaile leialak, gainera! Txistulariak erraldioen kalejiran laguntzeko —Manexek sortutako dantzei musika jarri diete orain—, eta pintura taldeko emakumeak, konponketetarako. Udala ere asko ari zaigu laguntzen.

Talde zabalagoa eskatzen du, ordea...

Joseba Jimenez Idoiagabeitia: Erraldoiak lauren artean eramaten ditugu, eta jendea behar da txandakatzeko, baita antolakuntzagaz lotutako beste hainbat kontutarako ere.

Ze leku daukate Lekeitioko erraldoiek eta buruhandiek bertokoen iruditerian?

A.G.: Denon erreferentzia dira. Eta zabalago begirata, erraldoiek, oro har, indar handia hartu dute bazter guztietan.

Manex Jimenez Goitia: Pentsa: nire sasoiko batzuek hamar konpartsatant izena emanda daukate...

A.G.: Lekeition ere jende pila bat erakartzen dute, eta jende hori elkartera animatu nahi dugu, familia handi bat sortu, bai erraldioen kalejira, bai beste edozein kultur ekimen denon artean aurrera ateratzen laguntzeko.

Eta Lekeitioren 700. urteurrena, hortxe.

A.G.: Euskal Herri mailako erraldioen topaketa bat antolatu nahi dugu, eta horretarako jendea behar da. ●





TXEBARRIA
lektrizitatea
lectricidad

699 852 246
ula.etxebe@gmail.com

INSTALAZIOAK OROKORREAN /
MANTENIMENDU LANAK /
ATEZAIN AUTOMATIKOAK /

48289 Lekeitio - BIZKAIA

COMPETEAUTO.COM

ESKUONAK AUTOKONPONKETA

Lidorrak seguratasunean, prestazioetan eta prezioan!

- Edozein arazo mekanikoen konponketa
- Txapa eta pintura
- Hantxoak pneumatikoak
- Zure autoa nahiz durun tokian hartu eta utriko ditugu

Gardetza Industrialdea, 9 BERRIATUA 94-683 33 59 - 679 63 13 06 - eskuonak@gmail.com

AZPITARTE autoak

- Zerbitzu azkarra!
- Berrikuspenak
- Matxura elektrikoak eta elektronikoak
- Mekanika

Okamika Industriagunea, II pabilloia 1A4. • GIZABURUAGA
688 62 92 84 / 94 624 38 60 azpitarTEautoak@gmail.com

ANDIKOMOTOR

AUTOKONPONKETAK

Tel.: 94 684 44 92
andikomotor@gmail.com

Okamika industrialdea
1. pabilloa/2. modulua/behea
48289 GIZABURUAGA

↓ 2023KO ARGAZKIAK



BETIKO
SUKALDARITZA

GASTRODENDA

Egaña

ETXERA
ERAMATEKO
JANARIA

% 100 NATURALA

Tel.: 747 411132
gastrodendaegana@gmail.com
Santa Katalina, 2 - 48260 LEKEITIO



BELAZAHAR

- Zure maskotarentzat behar duzun guztia
- Txakur ileapaindegia
- Albaitari kontsulta

94 684 06 71 • belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA • LEKEITIO



Ana Arrillaga Elhoro
Hartz Kirolak

www.anaarrillagaelkoro.eus



Paskual Aberoa, etorb. 2, behea • LEKEITIO • 94 685 00 44

ZERBITZUAK

- Odontologia orokor prebentiboa
- Odontopetria
- Ortodontzia
- Hortzen higieena
- Peridotntzia hortz-estetika
- Endodontzia
- Hortz-babesak
- Aurpegi-masailetako kirurgia
- Inplantologia
- Amalgamako enpasteak kentzea eta ordezkatzea
- 3D eskanerra
- Hortzak zuritzea zoom 600

AIHK



AKARREGI HAGIN KLINIKA

ODONTOLOGIA OROKORRA • ORTODONTZIA
• PERIODONTZIA • INPLANTEAK

Juan Jose Akarregi Loyola dokt. Kolegiatu zb. 573
Mediku estomatologoa R.S. 48C2515945

688 82 68 31 • 94-6842702

akarregi@cadentari@gmail.com
Paskual Aberoa Elorbidea 26 bis-behea, LEKEITIO

Liburuxka honetan ikus ditzakezun akatsak edo iradokizunak jakinarazi **HITZ**ari mesedez.

↓ DENON ARDURA DA

○ LEKEITIKO UDALA

Indarkeria matxistari aurre egitea **denon ardura da**, beraz edozein erasoren aurrean aktiboa izan behar da gure jarrera

OKURRIU BEZ:

- Dnarpelik gabeko igurtziak eta musuak
- Komentario edo begirada koflikatzaileak
- Astuna izatea
- Sexua izateko xantxia egitea
- Besteelako indarkeria matxistaren adierazpenak

HARREMANTE RAKDAN ARGIZ IZAN:

- Inorekin ligitzen saiatu aurretik, behatu hurbiltzeko egin duzun saiakera gustatzen zaiola eta jokaera harkorra den.
- Edozein unetan EZETZ esan daiteke
- Ez zaitez astuna izan!
- Ez pentsa lagunere arteko adierazpen afektibo batak zurekin inoloren bat esan nahi duenik.
- Norbait gu edo besteren bat molestatzen dagoela ikusten badugu, elkar gaitzen lagunekin eta esku hartu horrelakorik ez gertatzeko.

ERASO BATEAN AURREAN

- Erasotua sentitzen bazara, eraso da.
- Erantzuteko modu desberdinak daude: ZEUK erabaki.
- Ez zaitez lotsatu, erasotzailea da lotsatu behar dena!
- Jende gehiago egotekotan, laguntza bilatu. Kontaiezu zer gertatzen ari zaituzin eta zer egin nahi duzun.
- Mutilak! Ez zaitezte aldamenean geratu, erasoren konplize izateari utzi egin behar zaito.
- Erasoren bat ikusiz gero jasan duenarengana jo, galdetu zer behar duen eta haren beharriaz arreta moldatu. Beldu berak nahi duena errespetatu behar da.
- Ez ezazu erasorik justifikatu, ezta alkoholaren edo drogen aitzakia erabiltzen bada ere.

Telefono baliagarriak:

- Larrialdiak (24 ordu): 112
- Telefono bidezko laguntza edozein ordutan: 900 840 111
- Lekeitiko ambulategia: 94 603 66 60
- Udaltzaingoa: 94 684 20 00
- Txosna Batzordea

ERASORIK EZ ERANTZUNIK BARIK
LEKEITIKO UDALEKO PAREKIDETASUN BATZORDEA

Eraso matxistei erantzun! Eraso matxisten aurrean egin beharrekoa

- Pertsona bat erasotua izaten ari dela inuitzen bazara, harenengan joan eta laguntzarik behar duen galdetu lezazu, zeure kabuz erabakiek hartu aurretik.
 - Beldu bat edo norbait berrera baderor eraso salatzeko:
1. Leheritasuneko kontua da, beraz, egiten ari zarenari utzi eta pertsona horri babes gutxia eman eta kezu egin.
 2. Beharrezkoa bada, espazio seguru eta lasaia bilatu.
 3. Arreta handiz entzun eraso (jasan daenak esatiko duena (azalpena, beharrik...))
 4. Erasoa jasan duen pertsonari laguntza beharrezkoa da, hau kontuan izanda, eta posible bada, erasotzailearengana jo.
 5. Laguntza bilatu eta erasotzaileari enj utzi bere jarrera ez dela gohlago onartuko, beharrezkoa bada espaziotik kanporatu.
 6. Eraso jasan duen pertsonari jaigunera, etxera edo laguntza zerbitzuaren batera lagundu. Pertsonalki posible ez bada norbait laguntzeko deia zuzentzu.

**Ez badakizu
egoten, geratu
etxean!
Eraso
matxistarik ez!**

PUNTU MOREA

Irailak 1 eta 5, 22:00etatik 02:00etara Udaletxeko eskalieren aurrean.



GUZURMENDI

Arranegi Kalea, 2
Lekeitio ☎94 624 37 25

taberna

*Ondo
pasa
jaietan!*

ANTZARRAK

arrain freskua
razioak



etxera

ANTZARRAK



txatxo kaia z/b, LEKEITIO.



ONDO-ONDO PASA SANANTOLINAK!



↓ 2023KO ARGAZKIAK





 *Uribarren Abaroa*
fundazioa ▶ Egoitza
Eguneko Zentroa

www.urbarren.es

94-684 00 55 • Faxa: 94-684 07 58

residencia@urbarren.es

Iñigo de Artieta etorbidea, 2 - 48200 LEKEITIO



↓ 2023KO ARGAZKIAK





ZURE ETXEA
ZURE NEURRIRA

20.
Urteurrena



📍 Dendari kalea 44, Lekeitio

☎ 94-684 30 14

📱 @dk_lekeitio

✉ dkstudioalekeitio@yahoo.es